

2025eko Lehenengo Froga Herrikoia

**2025eko otsailaren 23a, igandea. Ezkaba mendia.
Irteera BERRIOZAR-etik**



1. Buletina



Buletina honen berriak:

Saretutak distantziak eta desnibelak.

¡Kontuz prozesionariak daudelako lasterketa zonaldean!

Lekua eta data

2025eko otsailaren 23an, igandea, Ezkaba mendian ospatuko da 2025eko Nafarroako Orientazio Liga Herrikoiairen lehenengo froga, Berriozarko CPEIP Mendialdea I ingurutik irtenda.

Kokalekua

Lehiaketa zentroa: Av. Berriozar, s/n, 31013 Berriozar, Navarra

<https://g.co/kgs/KwxNu8B>

Ba al zenekien...?

...Inguratzen gaituen paisaia gure kulturaren parte da, historiaren lekuko eta inguruko komunitateen garapenerako aberastasun iturri.

...Ezkaba mendia Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartuta dago, zehazki Eozeno Turbiditak direla eta. Hemen aurki dezakezu informazio gehiago: [Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioa. Eozeno turbiditak Ezkaban, Iruñean.](#)

...Tradizionalki, mendiko magaleko zelaien ustiaketaz gain, harria ateratzeko lekua izan da, Iruñeko eraikin historikoak eta beste interes elementu batzuk eraikitzeke.

...Ezka bako ihesaldia ere ezaguna da, Espainiako Gerra Zibilaren testuinguruan. Gizartean eragin handia izan zuten gertakari hauek, Memoria Espazio gisa mantentzen dira:

[Memoria espazioak. Ezkabako ihesaldia](#)

[Memoria espazioak. Botilen hilerria](#)

... Aurten mapa Antsoain herrira zabaldu dugu, interes monumentu batzuk gordetzen diren tokira: <https://www.ansoain.es/turismo/monumentos/>

...Articatik Ezkaba mendira igotzeko bidean dagoen Bihotz Sakratuaren eskultura Áureo Rebolék egin zuen 1982an, Ambrosio Eransus apaizaren enkarguz. Apirilaren 13an, Sangüesako mapan, antzeko beste eskultura bat aurkituko dugu.

...Orientazio kirolean, mapa gure tresna nagusia da. Kartografia Antzinatean hasi zen erabiltzen eta bere papera funtsezkoa izan da hainbat aspektutan. Mapak iraganera leihoak ere izan daitezke, hemen ikus dezakezu eta Ezkaba mendia eta bere ingurua nola aldatu diren: [Mapen konparatzailea: Nafarroako Gobernua](#) (ikuspegi optimoa ordenagailuan).

Egitaraua

- 10:00 h: Lehiaketa zentroaren irekiera.
- 10:30 h: Open BELTZA lehenengo irteerak.
- 11:30 h: GAINERAKO KATEGORIAK lehenengo irteerak.
- 12:30 h: Azken irteerak.
- 14:00 h: Helmugaren itxiera.

Ez dira irteera orduak aurrez esleituko, “baliza start” iritsiera ordenaren arabera izango da.

Irteerak 2 minuturo egingo dira.

Helmugaren itxieran (14:00 h) **parte-hartzaile guztiek helmuga gunetik igaro behar dute.**

Informazio teknikoa

Ezkaba Mendia

Kartografoa: Roberto Pascual

Eskala 1:7500 / 1:10000 (ibilbidearen arabera)

Maparen azalera osoa: 2,5 km²

Trazatzailea: Roberto Pascual

Mapa partzialki berria, aurten ekialdera 1,5 km² gehitzen baititugu, magalaren jarraipen gisa. Eremu berri hau nagusiki garbia eta pixka bat hiritarra da.

Hemen ikus dezakezue aurreko mapa, gehikuntzarik gabe:



Kontrolen deskribapena parte-hartzaileen eskura egongo da.

Ibilbideak eta gutxi gorabeherako distantziak

KATEGORIA	DISTANTZIA (km.)	DESNIBEL (m.)	BALIZA KOPURUA
KIMUAK	1,9	65	10
INFANTILAK	2,4	75	11
KADETEAK	2,9	140	11
JUBENILAK	4,1	180	11

Kronometraje sistema

Kategoria guztiek SPORTident erabiliko dute.

Ibilbidea amaitzen ez duen edo erretiratzen den korrikalariak **SPORTident deskarga gunetik pasa behar du, antolakuntzak jakin dezan erretiratu dela.**

SPORTident txartelik ez duten parte-hartzaileek inskripzio formularioaren bidez alokatu ahal izango dute, 3 euroko kostuarekin, NANA gordailu bezala utzita. Txartela galtzen edo hondatzen bada, 30 euroko zenbateko gehigarria ordaindu beharko da.

Emaizpen aurkezpena

Froga bakoitzaren emaitzak eta sailkapen finala [Nafarroako Kirol Elkarte](#) webgunean eta Liveresultat-en argitaratuko dira.

Izen emateak

Parte-hartzaile guztiek frogan izena emanda egon behar dute. Antolakuntzak ez du bermatzen aurrez izena eman ez duten pertsonen parte hartzeko aukera. Froga herrikoian parte hartu nahi duten pertsonen izen-emate formularioaren bidez egin beharko dute, honako helbideetan:

Taldeak: <https://forms.gle/kNrD6Len5whCxmjA9>

Bakarkakoak: <https://forms.gle/JE2CNaJNogdA14E6A>

ASEGURUA EZ DUTEN 14 URTETIK GORAKO PERTSONA GUZTIENTZAT
INSKRIPZIOAN NANA ADIERAZTEA DERRIGORREZKOIA IZANGO DA
Epea **otsailaren 20an, osteguna, 20:00etan** amaituko da.

Prezioak honako hauek izango dira:

- 2022-2025 artean jaiotako pertsonak: 0€
- 2012-2021 artean jaiotako pertsonak: 3€
- 2011 eta aurreko urteetan jaiotako pertsonak: 6€
- CDN/NKEko kideak: 1€ (2022-2025 artean jaiotakoak izan ezik, 0€)

Federatu gabekoentzako proba aseguru (Orientazioa / Mendinga): +2€/persona
Sportident alokairua: +3€ (CDN/NKEko kideak: +0€).

Talde bakoitzeko inskripzioak 2 mapa barne hartzen ditu. Mapa gehiago nahi izanez gero, talde inskripzio formularioaren bidez eskatuko dira, mapa gehigarri bakoitzeko +1€ kostuarekin.

Ordainketa CDN/NKE Orientazio Sailaren kontura transferentzia bidez egingo da. Transferentzia agiria klubaren kontura bidali inskripzioaren kostuarekin.

Kontzeptuan adierazi:

EZKABA + TALDEAREN/ PARTE-HARTZAILEAREN IZENA.

Klubaren kontua gogoratu:

Entitatea: Laboral Kutxa

Kontu zenbakia (IBAN): ES54 3035 0058 3605 8011 6766

Ordainketa agiria helbide honetara bidali: inscripcion.o.cdn@gmail.com

Zalantzak eta argibideak izanez gero, helbide berera idatzi dezakezue.

Beharrezko materiala eta praktika onak

Kirol arropa eta zapatila egokiak erabiltzea gomendatzen da, hobe trekking edo trail motako zapatilak. polainak edo galtzerdi altuak erabiltzea komeni da. Gainera, eguraldiaren arabera, berokia edo euritakoa.

Ibilbidean zehar iparorratza erabiltzea gomendatzen da. Iparorratzak maileguan ditugu, agortu arte. Iparorratza galtzen bada, 10 € ordaindu beharko dira.

Jasangarritasun eta praktika onen printzipio gisa, hornidura autokudeatua izango da, plastikoen erabilera saihesteko. Orientazio kirolak beti erakutsi du ingurunearekiko errespetu handia duela, horrela jarraitzea nahi dugu. Zuen lankidetzak eskertzen dugu!